

BALIO PROPOSAMENA:

Gaur egun, dakigun moduan, gaudezan egoeran, hainbat adinako pertsona aurkitu dira haien etxeetan bakarrik. Euskadiko biztanleriaren %19,2a nagusiak dira, hau da, 417.659 pertsona inguru. Honi dagokionez, Euskadetek 2050. urteko datuak kalkulatu ditu, eta proiektatzen dituzte 2050ean 554.765 pertsona izango direla. Kopuru hori biztanleria osoaren% 38,8 izango dira. Arazo desberdinak daude, eta gure ustez arazo larriena bakardadea da. Arazo horiei aurre egiteko, pertsona hauek edo haien familiekoek 3 irtenbide daukatez bakarrik ez egoteko. Lehenengoa, familiagaz bizitzea, baina danok dakigun moduan, familiagaz bizitzeak esan nahi du, adinako pertsonak ez direla ondo sentituko haien etxea ez den leku batean bizitzean. Bigarrena eta gehienak egiten dutena, egoitz batera joatea da, baina hemen, batzuetan bakarrik sentitzen dira. Hirugarrena eta azkenengoa, bakarrik bizitzen jarraitzea eta haiei laguntzeko kontratatutako kanpoko pertsona batekin.

Gure proposamena, bakardadea ekiditzeko autonomoak diren adin nagusikoak haien pisua konpartitzeko aukera emango duten zerbitzu bat antolatu nahi dugu. Horren bidez, adineko pertsonen autonomia luzatzea bilatzen dugu. Zerbitzu honen bidez, h nagusiek ez dute buruhausketarik izango etxeko gastuekin, alokairuarekin... bakarrik arduratu behar dira, ondo pasatzeaz eta esperientzia ona edukitzeaz bizi modu normal batean, haien zaletasunak partekatzen dabezan pertsonaz inguratuta.

Pisukideak eta elkarbanatzeko pisuak bilatzeaz gain, beraien beharren eta nahien arabera, haiek nahi izatekotan, ondorengo zerbitzu gehigarriak kontratatu ahalko ditzuzte nahi izatekotan:

- Etxearen gastuen eta ordainketen kudeaketa.
- Etxea garbitzearen zerbitzua.
- Beraien neurritik egindako menuak sukaldatzea.
- Medikuarenera laguntzeko zerbitzua.
- Etxean osasun zaintza ematearen zerbitzua, hala nola: tentsioa neurtu, fisioterapeuta etxean...

Idea hau aurrera ateratzeko eta gure bezeroak ondo eta seguru sentitzeko, bezeroaren arreta zerbitzua eramango dugu bulego batetik, gainera garatuko dugun webgune batetik baita ere. Enpresaren langileak eskeintzen ditugun zerbitzuak emateaz eta kontrolatzeaz arduratuko dira.

Batuko dituguzan pertsonak bateragarri direla jakiteko, haien datuekin eta zaletasuneekin fitxa bat betetzea beharrezkoa izango da, bateragarri den pertsona batekin batzeko. Prozesu hori amaitu eta gero, etxe baterako aukeratutako pertsonak batuko genituzke gure bulegoan bata bestea ezagutzeko eta egiaztatzeko haien artean giro polita, ona eta arazo barik bizitzeko. Gainera, diru gehiago lortzeko eta haien osasuna hobea izateko asmoz, medikura joaten lagunduko diegu, astero bizitzen diren etxera joango gara haien tentsioa neurtzeko, janaria prestatuko dugu...